



txakolinaren itzalpean ibilian ibiliz.

7,5 Km - 2 ordu

fitxa teknikoa

- Ibilbidearen hasiera/amaiera: **Axpe - Udaletxea**
- Ibilbidearen luzera: **7,5 km**
- Gehienezko malda: **50 m**
- Denbora (g.g. b.): **2 ordu**


Gomendioak:

- Honako noranzko hau gomendatzen da: Axpe-Sukarrieta-San Antonio-Axpe-San Kristobal-Altamira-San Bartolome-Axpe.

- Beste abiapuntu posible batzuk: Sukarrieta, Itsabegi, Madariaga-San Kristobal eta Altamira.

- Madariaga Dorretxea. Bisitaldiak: 94 687 04 02.

Ibilbidearen perfila:



Erraz egiteko moduko ibilbidea Busturiako auzo nagusietan barrena. Sukarrietarekin konektatua. Interes handiko guneak aurkituko ditugu bidean, hala nola Madariaga Dorretxea, Sukarrietako udalekuak, Txatxarramendiko uhartea edo San Kristobal hareatza, Urdaibaiko paduren oinetan.

Busturiako udalerrian interes handiko hainbat elementu biltzen dira, eta ibilbide biribil eroso honi esker izango dugu horietako asko ezagutzeko aukera.

Axpetik abiatuta, Sukarrietarako bidea hartuko dugu, Errege Bide zaharraren tarte enkatxatu batean barrena. Bide horrek Gernika eta Bermeo lotzen zituen Busturiaren parean, eta Bizkaiko bide-ondarearen adierazgarri balioetsua da.

Gune pribilegiatu batean egonik, estuarioko bista ezin hobekak eskaintzen ditu Sukarrietak. Txatxarramendi uhartea eta Toña eta San Antonio hondartza nabarmentzen dira. Azken horretara iristeko, 1925az gerostik diharduten udaleku historikoen ondotik pasatuko gara.

Axperako bidean, hondartzen ordez landazabal atlantikoa aurkituko dugu Urkitza eremuan, paduraren ikuspegi eder-ederraz gozatzeko begiratoki aparta.

Axpetik abiatuta, Madariaga Dorretxera-Ekoetxea Urdaibaira igotzen da bidezidorra, ondoren San Kristobal auzora jaitsi eta Altamirarantz jarraitzeko.

San Bartolome eta Altamira auzoen artean, parrapeko bide zaharrez eta haien zutabe bitxienez gozatzeko aukera izango dugu.

Atxapuntako tontor nabarmenaren oinetan elementu interesgarri ugari aurki ditzakegu, hala nola San Pedro koba, Aingerubideko hariztia edo Andra Mari eliza historikoa.



informazioa

Turismo bulegoak:

- Gernika-Lumo..... 94 625 58 92
- Bermeo 94 617 91 54
- Mundaka 94 617 72 01

Garraio publikoa:

- Bizkaibus 946 125 555
- Euskotren 902 54 32 10




Urdaibaiko Biosfera
Erreserbako Patronatua
Madariaga dorretxea
94 403 23 60

madariaga dorretxea-ekoetxea

Madariaga dorretxea eskualdeko leinu nagusietako baten jabetza izan zen. Gotortutako eraikina da, eta tontor pribilegiatu baten gainean altxatzen da. Euskadiko Biodibertsitatearen Zentroaren eta Urdaibaiko Biosferako Erreserbaren patronatuaren egoitza da gaur egun.

Erreserbatu zure bisita!



Errege bideko galtzada

parrapeko bideak

Busturiako auzo-bide askotan harrizko pilastra txikiak aurkitzen ditugu. Busturiako XVII.-XIX. mendeetako txakolingintzaren adierazgarri dira. San Bartolomen, Amunategiko upeltegirako sarreran berreskuratutako pilastrak nabarmentzen dira.

Gogoratu

- Ondo prestatu txangoa
- Utzi baketan inguruko animaliak
- Gogoratu prisma-koak hartzea
- Ez hartu lorerik
- Utzi atatak aurkitu dituzun moduan
- Ez bola zaborrik



Busturiako landazabala eta padura



Homologatutako ibilbideak. Sinbologia.

PR®			
	Zidorraren jarraipena	Norabide aldaketa	Okerreko norabidea
	Mendiko ibilbide laburra (PR)		
	Mendiko ibilbide luzea (GR)		
	Interesguneetara desbiderapenak		



urdaibaiko padurak

Euskal kostaldearen itsasertzeko hezegune nagusiak dira, Okaren estuarioan urpean gelditzen den eremuan barrena. Beren kontserbazio-egoera eta giro-dibertsitatea direla eta, hainbat hegazti-espezie urtar erakaritzen dituzte haien migrazio-bidaia luzeetan. 600 hektareako zabalera dauka, gutxi gorabehera, eta gazitasun-maila eta urpean gelditzeko aukerak aldatzen dira toki batetik bestera, landaredi-unitate konplexu bezain askotarikoak sortzen direlarik. Gogoan hartu prismatikoak hartu behar dituzula!

- | Ikurrak | | | |
|---------|-----------------------|--|---------------------|
| | Abiapuntua | | Natura 2000 sarea |
| | Aparkalekua | | Madariaga dorretxea |
| | Eliza | | Interes naturala |
| | Ermita | | Iturria |
| | Dorretxea | | Atsedengunea |
| | Koba | | Garraio publikoa |
| | Gailurra | | Ostatua |
| | Ikuspegi panoramiko | | Taberna-jatetxea |
| | Txakoli mahats-parrak | | Hondartza |